

ADMINISTRAZIOKO KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA .

ARETXABALETAKO IBARRA KIROLDEGIAN DAGOEN LOKALA, KIROL JARDUERETARAKO EDO KIROLAREKIN ETA OSASUNAREKIN ZERIKUSIA DUTEN JARDUERETARAKO USTIATZEKO HERRI JABETZAREN ADMINISTRAZIO EMAKIDA.

1. HELBURUA

Dagokigun emakidak Kiroldegian dagoen lokala (geroago deskribatuko dena) ustiatzea du helburu, beti ere administrazioko Klausula partikularren pleguan jasotako baldintzekin bat etorritz.

Emakida xede izango den ondasuna, Aretxabaletako Markole auzoan dagoen Ibarra Kiroldegian dagoen lokala da.

Aretxabaletako Markole auzoan kokatutako Ibarra Kiroldegia dagoen eraikinak bost solairu ditu: Sotoa, etxabea, lehen solairua, bigarrena eta hirugarrena, eta dagokigun lokala lehenengo solairuan dago.

Eraikinak guztira 7.085,12 m² ditu eta emakida gai izango den lokalak 51,05 m²koa.

Oineko Planoak eta eraikinaren fatxada eransten dira.

Udalak, plegu honetan jasotako betekizunak betekizun, ustiaketarako eman nahi den instalazioaren jabetza gordeko du berarentzat.

Ibarra kiroldegian dagoen lokal bat denez, bere ustiaketak kirol edo osasun jarduerekin zerikusia izan beharko du.

2. ARAUBIDE JURIDIKOA.

Ondorengo klausula hauek arautzen dituen kontratuak administrazioko izaera du eta plegu honetan ezarritakoak arautuko du, eta bertan aurreikusita ez dagoen guztiari aplikaziozkoa izango zaio: Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Korporazioetako Oinarrien Arautzaila eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, erregimen lokaleko gaien indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartzen duena, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Tokiko Erakundeen oinarrien Araudia onartzen duena, 33/2003 Legea, Herri Administrazioen ondarearena, martxoaren 5eko 2/2004 Errege dekretu Legegilea, Tokiko Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duena, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena, eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Araudi orokorra onartzen duena. Eta aurreko arauen kontra ez dagoen guztietan, haien ordezkari Administrazio Zuzenbidearen gainerako arauak arautuko dute eta horiek ezean Zuzenbide Pribatuko arauak aplikatuko dira.

3. EPEA.

Emakida hau bi urtekoa izango da, hau da, 2018ko abenduaren 31artekoa, eta ezingo da luzatu.

Emakidaren epea, instalazioak eskura jartzen diren egunetik aurrera hasiko da, hau da, kontratua sinatzen den egunetik aurrera, zeina esleipena jakinarazten den hurrengo egunetik hasi eta 10 laneguneko epean egin beharko den.

Udalak beretzako gordetzen du emakida, epea amaitu baino lehenago bertan behera uzteko ahalmena, sor daitezkeen interes publikoko arrazoiak hala justifikatzen dutenean. Hala gertatuko balitz esleipendunari kalte-ordainak ordainduko zaizkio.

4. KANONA

Esleipendunak hilean 400 euroko kanona (gehi beste 84 euro, BEZari dagozkionak) ordaindu beharko dio Aretxabaletako Udalari. Diru kopuru hori gorantz hobetu ahal izango da. Kanon hori urtero eguneratuko da, Estatistika Erakunde Nazionalak edo hur ordezkariak duen erakundeak ezarritako, estatuko urte arteko Kontsumorako Prezioen Indizeak izango duen gehikuntzarekin bat etorritz. Berrikuspen ondorioetarako hasierako indizea, kontratua sinatzen den hilabeteari dagokiona izango da.

Emakidadunak, Udalak horretarako emango dion kontu korrante batean sartu beharko du dirua hilabete bakoitza iragan ondoren eta hala eskatu behar izan gabe. Ordainketa hori zerbitzua eman eta hurrengo hilabeteko lehenengo bost egunetan egin beharko da.

5. ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA

Emakida kontratua esleitzeko modua, prozedura ireki bidezko lehiaketa izango da eta esleipen irizpide desberdinak izango ditu, toki erakundeen kontratazioari buruzko legerian aurreikusitakoarekin bat etorriz.

6. ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK.

Emakidaren esleipena ondoren aipatzen diren irizpideen arabera egingo da:

1. Eskaintako hileko kanona, gehienez ere 70 puntu. Eskaintza ekonomiko onenari 70 puntu emango zaizkio eta gainerakoak eskaintza horren arabera puntuatuko dira proportzionalki.
2. Proposatzen den zerbitzuaren kudeaketari buruzko memoria. Gehienez ere 10 puntu.
3. Eskarmentu profesionala. Gehienez ere 10 puntu.
4. Zerbitzuaren emakidari atxikitako taldea. Gehienez ere 10 puntu.

7. LIZITATZAILEEN GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege dekretu Legegilearen 54 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratatze gaitasuna dute, jarduteko gaitasun osoa duten eta kaudimen ekonomiko eta finantzario nahikoa egiaztatzen duten pertsona natural edo juridiko guztiek, izan espainol edo atzerritar, beti ere TRLCPSren 60. artikuluan zehazten diren kontratatze debekurik ez badute. Era berean bere kabuz edo baimendutako pertsona batez ordezkaturako aurkeztu ahal izango dira, horretarako emandako ahalorde askietsiaren bitartez, eta pertsona juridiko baten ordezkari gisa aurkeztu direnean horretarako behar diren ahalmenak dituela egiaztatze dagozkion agiriak aurkeztu beharko ditu. Kasu bietan Administrazioarekin kontratatze gaitasun arrazoiak eragiten diote ordezkariari.

Kontratu hau sinatu ahal izateko lizitatuak, Kaudimen Ekonomikoaren, Finantzarioaren eta Teknikoaren baldintza minimoak dituela egiaztatze beharko du, Plegu hauetan zehazten diren bitartekoak erabiliz.

8. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA.

Kontratazio organoak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen perfilean iragarriko du emakidaren lizitazioa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen Azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilean xedatutakoarekin bat etorriz.

Proposamenak, Aretxabaletako Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, iragarkia gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasi eta hamabost eguneko epean eta baita indarrean dagoen urriaren bateko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenean, aurreikusitako bitartekoaren bidez ere, beti ere esandako epe horretan. Postaz bidaliko balitz, lizitatuak frogatu egin beharko du zein egunetan bidalia izan den eta gainera adierazi egin beharko dio kontratazio organoari eskaintza postaz bidalia izan dela, fax bitartez. Bi betekizun horiek betetzen ez badira, edota igorri izanaren jakinarazpena iragarkian adierazitako epea baino beranduago, hau da, jarritako eguna eta ordua baino beranduago iristen bada, proposamena ez da onartuko.

Proposamen edo parte hartze eskaria aurkezteak bakarrik, enpresariak, plegu honetan dauden baldintzak edo klausulak bere osotasunean eta inolako baldintzarik gabe onartzen dituela esan nahiko du.

9. PROPOSAMENEN ITXURA ETA EDUKIA

Lehiatzaileek bi kartazalean aurkeztuko dituzte proposamenak, itxita eta sinatuta, edukia gordeta mantentzeko. Kartazal horiek 1, 2 eta 3 zenbakiarekin zenbatuko dira.

Kartazal itxi bakoitzean lizitatuaren izena agertuko da kanpoan, edo hala badagokio ordezkariarena, bere IFKa, egoitza soziala, telefonoa, posta elektronikoa eta fax zenbakia, komunikazioetarako eta ondorengo lema izango du: ARETXABALETAKO IBARRA KIROLDEGIAN DAGOEN LOKALAREN ERABILERA PRIBATIBORAKO ADMINISTRAZIO EMAKIDA EMATEKO, PROZEDURA IREKI BIDEZ EGINGO DEN LEHIAKETA PUBLIKOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA.

Kartazal bakoitzaren barruan, eta aparteko orri batean, bere edukia adierazi beharko da jarraian adierazitako den eran zenbatuta.

9.1 1. KARTAZALA. Aurreiazko betekizunak egiaztatze dokumentuak.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011ko 146 Errege Dekretu Legegilearen 146. artikulua 4. atalak ahalbidetzen duen neurrian, lizitatuak 1. atalean ezarritako dokumentazio aurkeztu ordez, aitopen arduratsua aurkeztu beharko du esanez Administrazioarekin kontratatzeke lege ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela. Kasu horretan Kontratuaren esleipendun izateko proposamena jasotzen duen lizitatuak, eskatutako dokumentazioa duela eta baliozkoa dela egiaztatu beharko du kontratazio organoaren aurrean kontratua esleitu aurretik. Aitopen arduratsua ondorengo eredura lotutakoa:

- ".....Andreak/Jaunak, nire izenean edo enpresaren legeko ordezkari izanik, NIRE ARDURAPEAN AITORTZEN DUT:
- 1º. Administrazioarekin kontratatzeke lege ezarritako baldintza guztiak betetzen ditudala Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011ko 146 Errege Dekretu Legegileak eskatzen duenaren arabera, bertan aurreikusitako termino eta baldintzetan.
- 2º. 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan kontratatzeke zehaztutako debeku eta bateraezintasunik ez duela (ez berak ezta ordezkatzeko duen enpresak eta bere administrari edo ordezkariak ere).
- 3º. Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, eta Aretxabaletako Udalarekin, exekuzio aldi ordaindu beharreko tributuzko zorrik ez duela, baimena emanaz Administrazio kontratugileari, esleipendun gertatzen bada informazio hori eskuratu ahal izateko, hitzarmenak egin dituen beste Administrazio Publiko batzuen datu baseen bitartez.
- Era berean konpromisoa hartzen du Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011ko Errege Dekretu Legegilearen 146. artikulua 1. atalean eskatzen diren dokumentuak dituela eta baliozkoak direla egiaztatzeke kontratazio organoaren aurrean kontratua esleitu aurretik
- Lekua, data eta lizitatuaren sinadura.

Ordezkatza egiaztatzea

- Beste baten izenean jardun edo eskaintzak sinatzen dituztenek, ordezkatza eskumena aurkeztu beharko dute

9.2.2. KARTAZALA. Proposamen ekonomikoa

Proposamen ekonomikoa behar bezala sinatuta eta eguna jarrita aurkeztuko da, I. eranskin bezala azaltzen den eredu ofiziala betez. Zenbakitan adierazitako kopuruaren eta letretan adierazitakoaren artean adostasunik ez balego, azkena nagusituko da, alegia letraz adierazitakoa.

Ez da onartuko, Administrazioak eskaintzarako ezinbesteko jotzen duen guztia argi eta garbi ezagutzea eragotziko duten omisioak, akatsak edo zirriborroak dituen proposamenik .

9.3.3. KARTAZALA. Gainontzeko esleipen irizpideei buruzko agiriak:

Honako agiriak eduki beharko ditu:

9.3.1 Proposatzen den zerbitzuaren kudeaketari buruzko memoria.

Memorian zerbitzua zein ordutan emango den azaldu beharko da, zeinak edozein eratarik kiroldegiarena errespetatu beharko duen. Zerbitzua emateko era ere azaldu egin beharko da.

9.3.2 Eskarmentu profesionala.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Altan izatearen dokumentua aurkeztu beharko da, jarduerari dagokion epigrafean.

9.3.3 Ustiapenari lotutako lan taldea

Zerbitzua emateko proposatutako pertsona kopurua zehaztuko da eta bakoitzaren dedikazioa eta titulazioa.

10. KONTRATISTA AUKERATZEA ETA ESLEIPENA.

10.1 Dokumentuak egiaztatzea eta kalifikatzea.

Kontratazioa mahaiaren idazkaritzak kartazalak jaso ondoren, elkartu egingo da, garaiz eta forman aurkeztutako agiriak kalifikatzeko. Horretarako presidentek 1. kartazala irekitzeko agindua emango du..

Kontratazio mahaiak, 1. kartazalean dagoen dokumentazioan, konpon daitezkeen akats edo hutsegiteak daudela ikusten badu, hitzez edo bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa erabiliz, adieraziko die interesatuei, eta publiko egingo du kontratazio organoaren kontratatzailearen perfilaren bitartez. Gehienez ere hiru laneguneko epea emango zaie lizitatuak, antzemandako akats edo hutsegite horiek, kontratazio mahaiaren aurrean bertan,

konpontzeko. Emandako epean dokumentazioa konponduko ez balitz lizitatzailerak behin betiko baztertuko dela ohartaraziz.

10.2 Kontratazio Mahaia

Kontratazio Mahaia adieraziko den moduan osatuko da:

Presidentea: Unai Elgoro Oianguren

- Bokalak: Mikel Uribetxebarria Barrena, Fco. Javier Mendizabal Garate, Juan Antonio Martinez de Aguirre Etxabe, eta Asier Mujika Altuna.

Idazkaria: José M^a Segovia

10.3 Proposamenak irekitzea.

Kontratazio mahaiaren presidentek, lizitazio iragarkian aipatzen diren egun eta orduan, aurkeztutako dokumentuen kalifikazioaren berri emango du egintza publikoan, onartutako eta baztertutako proposamenen berri emanez eta horretarako egon diren arrazoiak azalduz. Jarraian onartutako lizitatzailerak 3. zenbakidun kartazalak irekiko dira.

Kontratazio mahaiak kartazal horretan dagoen dokumentazioa, osatu ahal izango litzatekeen Batzorde Teknikoari igorri ahal izango dio baldin eta hala iritziko balio, onartutako lizitatzailerak aurkeztutako proposamen ezberdinak aztertuko; azterketa horrek proposamenen balorazioa eta ebaluazioa jasoko ditu esleipenaren irizpide teknikoekin bat etorritik. Batzorde Teknikoa osatuko ez balitz, Kontratazio Mahaia berak baloratuko ditu proposamen tekniko horiek, esleipen irizpide teknikoekin bat etorritik. Mahaia ondoren lizitatzailerak bakoitzak, balio judizioen bidez baloratu beharreko esleipen irizpide tekniko bakoitzean lizitatzailerak lortutako puntuazioa eta guztira lortutako puntuazioa jasoko dituen txosten bat aurkeztuko du, eta aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu, ordena beharrez.

Kontratazio mahaia berriro elkartu ondoren, 3. zenbakidun kartazaleko irizpideei atxikitako puntuazioaren berri emango da, ezarritako esleipen irizpideen arabera. Jarraian 2. kartazala irekiko da. Udalak bere web orrian argitaratuko du, kartazal hori irekiko den eguna eta ordua.

3. kartazalean aurkeztutako agirien arabera lortutako puntuazioa eta 2. kartazaleko proposamen ekonomikoa ikusirik, kontratazio mahaiak kontratuaren esleipenduna proposatuko du.

10.4 Esleipenduna aukeratzea.

Kontratazio mahaiak dagokion esleipen proposamena egingo dio kontratazio organoari; horrek ordea ez du proposatutako lizitatzaileraren aldeko inolako eskubiderik sortzen.

Kontratazio Organoak, proposamenak, esleipenaren irizpideak jarraituz, ordena beharrez sailkatu ondoren, Kontratazio eskaintza ekonomikorik onenari esleitzea erabakiko du, plegu honetan ezarritako irizpideekin bat etorritik edo lizitazioa hutsik aitortu dezake.

Eskaintzak irakurri ondoren, bi proposamen edo gehiago berdinak balira, eta haiek onenak balira, esleipena bere plantillan ez gaitasuna duten edo bazterketa arriskuan dauden langileak dituen lizitatzaileraren aldekoa izango da. Hala eta guztiz ere, proposamenak berdinak balira edo inork ez balu aurreko paragrafoaren arabera lehentasunik, esleipen irizpideen ponderazioan pisurik gehien duen esleipen irizpidean puntuazio handiena lortzen duena izango da.

Emakida ez bada kontratazio mahaiak egindako proposamenarekin bat etorritik esleitzen, Kontratazio Organoak hartutako erabakia justifikatu egin beharko du.

10.5 Esleipen aurretik aurkeztu beharreko dokumentazioa

Esleipena egin aurretik lizitatzailerak ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du, errekerimendua jasotzen denetik hasitako hamar eguneko gutxieneko epean:

a) Zerga-betebeharrak.

- Zerga-Administrazioaren Estatuko Agentziak emandako aldeko ziurtagiria positiboa esanez Zerga-betebeharrak egunean dituela edo aitorten arduratsua esanez ez daukala haiek aurkezteko inolako betebeharrak.

b) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak

- Gizarte Segurantzaren Lurraldeko Diruzaintzak emandako aldeko ziurtagiria positiboa esanez Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela edo aitorten arduratsua esanez ez daukala haiek aurkezteko inolako betebeharrak.

c) Behin betiko bermea:

Esleipendunak kontratuaren indarraldian ordaindu behar duen kopuru osoaren %5eko behin betiko bermea aurkeztu beharko du, BEZ kenduta, Aretxabaletako Udaletxeko Diruzaintzan. Behin betiko bermearen itzulketa edo likidazioa, kontratua betetzen denean edo kontratistaren inolako erantzunik gabe amaitzen denean egingo da.

d) Gainontzeko agiriak.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011ko Errege Dekretu Legegilearen 146.1 artikulua eskatzen dituen gainontzeko agiriak aurkeztu beharko dira, batez ere kaudimenari dagozkionak:

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:

Urteko negozioen bolumena edo, azken hiru urteetan, negozio bolumen handiena izan duen urteko kontratuan ageri den esparruan, urteko negozio bolumena.

Negozioen urteko bolumena onartutako eta Merkataritza Erregistroan gordailututako urteko kontuen bidez egiaztatuko da, baldin eta enpresaria Erregistro horretan inskribatuta badago. Hala izan ezean, enpresariak inskribatuta egon behar dueneko erregistro ofizialean gordailututako kontuak aurkeztuko dira. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresariak urteko negozio bolumena Merkataritza Erregistroak legezkatutako inbentarioen edo urteko kontuen bidez egiaztatuko dute.

- Kaudimen tekniko edo profesionala:

Esleipendunak honako agiriak aurkeztu beharko ditu:

a) Kontratuan parte hartzen duten langile teknikoak edo unitate teknikoak –enpresa barrukoak zein kanpokoak- zein izango diren zehaztea

b) Enpresaburuaren eta enpresako zuzendaritza-taldeko kideen titulu akademikoak edo lanbide-tituluak; bereziki kontratua gauzatzeko erantzukizuna daukatuenak.

Errekerimendua emandako epean behar bezala beteko ez balitz, lizitatuak eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da. Kasu horretan eskaintzaren sailkapenetan hurrengo postuan geratu den lizitatuari eskatuko zaio dokumentazioa aurkeztea

10.6. KONTRATUA ESLEITZEA

Kontratazio organoak emakida esleituko du, horretarako egon diren arrazoiak emanez, dokumentazioa jasotzen denetik jaso eta bost laneguneko epean, eta hautagai edo lizitatuak jakinaraziko zaie eta horrekin batera, kontratu egilearen perfilean argitaratuko da.

11. Kontratuaren formalizatzea.

Emakida kontratua ezingo da sinatu aurretik gauzatu hasi. Sinaketa, esleipenaren lizitatuak edo hautagaiei egindako jakinarazpena jasotzen den egunetik hasitako hamabost laneguneko epean egingo da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 151.4 artikuluan aurreikusitako eran. Sinaketa edo formalizazio hori administrazio agirian gauzatu da - zeina lizitazioaren baldintzei lotuko zaien zehatz-mehatz- eta dokumentu hori nahikoa izango da edozein erregistro publikoetara sartzeko. Kontratistak, kontratua eskritura publikoan jaso dadila eskatu ahal izango du, sortutako gastuak bere kontura izanik.

Kontratuaren esleipendunaren erruagatik epe barruan formalizatzen ez bada, Administrazioak, kasu horretan eskatutako behin behineko bermearen kopuruaren konfiskazioa erabaki dezake, behin betiko bermetik.

12. KONTRATUA BURUTZEA

12.1. ARAU OROKORRAK

1. Kontratuaren Plegu honetan zehaztutakoa zehatz-mehatz betez egingo da, eta edonola ere, Aretxabaletako Udalaren ordezkariak, haien interpretazioan edo gauzatzeko, idatziz eman ditzaketen aginduen arabera.

2. Esleipenduna behartuta dago, kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezko diren elementuak eta bitarteko teknikoak jartzera. Udalak, egoki irizten duen edozein elementu baztertu ahal izango du.

3. Kontzesiodunak zuzenean kudeatuko du jarduera, eta debekatuta du Udal Korporazioaren baimenik ez badu behintzat, hura beste bati uztea, alokatzea edo antzeko beste zerbait egitea.

4. Esleipendunak, bere betebeharrak betetzeko beharrezko diren langileak jarriko ditu. Langile horiek esleipendunaren menpe egongo dira eta bereak izango dira enplegu emaile denez, haiekiko eskubide eta betebeharrak guztiak, eta bete egin beharko ditu langile horiei dagozkien lan arloko xedapenak eta baita gizarte segurantzarekin eta laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia dutenak ere.

5. Udal Administrazioari dagokio eta zehazki Udalak izenda dezakeen kontratuaren arduradunari, Kontratua behar bezala betetzen ari dela gainbegiratzea, koordinatzea, egiaztatzea eta artatzea.

6. Hitzartutakoaren gauzatzeari dagokionez, kontratua, bere osagai diren dokumentuak edota Administrazioak onartutako era guztietako plegu, arau, edo instrukzio ez ezagutzeak ez du esleipenduna haiek betetzetik salbuetsiko.

12.2. KONTRATUAREN ERANTZULEA.

Kontratazio organoak kontratuaren arduradun bat izendatu ahal izango du; berea izango da hura behar bezala gauzatzen dela gainbegiratzeko ardura eta hitzartutako emakida behar den bezala egingo dela ziurtatzeko beharrezko diren erabakiak hartu eta aginduak emango dituena, beti ere eman zaizkion ahalmenen barruan. Kontratuaren arduradunaren izendapena idatziz jakinaraziko zaio kontratistari, kontratua sinatzen denetik hasi eta hamabost eguneko epean eta hura izendatzeak edo ez izendatzeak eta hark bere ahalmenak gauzatzeak edo ez gauzatzeak ez du kontratista kontratua behar bezala betetzetik salbuetsiko. Arduradunak eta haren laguntzaileek, kontratistaren ordezkariak lagunduta, zerbitzua ematen den lekuetarako sarbide libre izango dute.

12.3 Aretxabaletako Udalaren eskubide eta betebeharrak.

1. Kontratuak dirauen artean, ondorengoak izango dira Aretxabaletako udalaren ahalmenak:

a) Ustiapenean interes publikoak gomendatzen dituen aldaketak agintzea, zerbitzua berak emago balu egingo lukeen bezala:

Zerbitzuak jasotzen dituen prestazioen kopurua, haiek emateko denbora edo lekua aldatzea.

Publikoak ordaindu beharreko tarifak aldatzea.

b) Emakidadunaren kudeaketa fiskalizatzea; horretarako zerbitzuak ikuskatu ahal izango ditu eta baita administrazioko emakidaren xedearekin zerikusia duen dokumentazioa, eta emakida egokia mantentzeko edo berreskuratzeko aginduak ematea

c) esleipendunari, egin ditzakeen arau-hausteeak direla eta, dagozkion zuzenketak ezartzea.

d) Zerbitzua erreskatatzea

d) Zerbitzua kentzea

2. Udalaren obligazioa izango da:

Zerbitzua era egokian eman ahal izateko, emakidadunari dagokion babesa ematea.

b) Zerbitzuaren funtzionamendua zaintzea eta kontrolatzea eta ustiapenean akatsik antzemango balitz, dagokion akta jasotzea ezar ahal litezkeen zigorrek ezartzeko.

13. HIZKUNTZ BETEBEHARRAK

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan, eta Euskararen Erabilera Planaren (2013-2017) baitan Aretxabaletako Udalak onartutako Hizkuntza Irizpideetan.

Aipaturiko Dekretuak administrazioetako normalizazio planek jaso beharko dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu 18. artikuluan, eta horien artean ondorengo agertzen da: "18 d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar litzuzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezzen."

Horrenbestez, kontratu honek nahitaez bete behar duenez hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, zerbitzu hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira, eta kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Horregatik, zerbitzua ematerakoan hizkuntza biak erabiliko dira ahozko zein idatzizko komunikazioetarako, lehentasuna euskarari emanez.

Baldintza plegu honetan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

Langileen hizkuntz gaitasuna:

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar litzuzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, zerbitzua ematerakoan herritarrekin harremana izango duten langileek Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasunaren pareko ahozko maila egiaztatu beharko dute.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- Zerbitzua eman behar duten pertsonak eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
- Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Hizkuntz erabilera herritarrekin:

Zerbitzu erabiltzaileei harrera egin eta erantzuteko, udalak bete behar dituen hizkuntza baldintza berak bete beharko dira. Eta, horregatik,

- Banakako harremanetan, lehen hitza euskaraz egingo da, eta hortik aurrera, erabiltzaileek aukeratutako hizkuntza ofizialean.
- Taldekako harremanetan, berriz, taldearen hizkuntza tipologiaren arabera jokatu da:
 1. Partaide guztiek euskara ulertzen dutenean, jarduera hori euskara hutsean egingo da.
 2. Partaideen erdiek baino gehiagok euskara ulertzen dutenean, jarduera hori nagusiki euskaraz egingo da. Beharrezkoa balitz, monitoreak laburpenak egingo ditu erdaraz edo banakako azalpenak eman horren beharra dutenei.
 3. Partaideen erdiek baino gutxiagok ulertzen dutenean euskara, jarduera hori nagusiki erdaraz egingo da.
- Hitzaldi, informazio saio eta antzekoetan, aukera dagoen guztietan euskarazko eta gaztelaniazko saio bereziak egingo dira. Hori posible ez bada, euskaraz edo ele bietan egingo dira, lehentasuna euskarari emanda.
- Idatzizko jakinarazpenak eta komunikazioak (inprimakiak, abisuak, ordainagiriak...) euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.
- Errotulu, ohar, seinale eta hitz gutxitako komunikazio orokorrik jarri behar izanez gero, mezua euskaraz idatziko da, piktogramaz lagunduta. Piktogramak erabilita ere mezua behar bezain argia izango ez balitz, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez.

Hizkuntza erabilera administrazioarekin:

Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, memoria, bilera...) euskaraz izango dira.

Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena:

Aretxabaletako Udaleko kirol zerbitzuak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

14. URRAKETAK ETA ZIGORRAK

Plegu honetako klausulak ez betetzeak, emakidadunari zigorak jartzea ekarriko du, bertan aurerikusitakoaren arabera. Zentzu horretan zigortzeko moduko egintzak izango dira, utzitako ondasunaren bitartez ematen den zerbitzuaren kalitatea kaltetu dezaketen edo bertako instalazio eta obretan kalteak eragin ditzaketen emakidunari egotz dakizkiokeen ekintza edo hutsegiteak

Beste batzuen artean ondorengo egintzak zigortu ahal izango dira:

- a) Emakida honen ondasuna baimendutako jarduerekin zerikusirik ez duten beste jarduera batzuetarako erabiltzea.
- b) Emakida xede diren baimendutako jarduerak ez garatzea.
- c) Jarduera denbora luzez eta inolako arrazoirik gabe etenda mantentzea.
- d) Segurtasun, osasun publiko eta apaindura arrazoiengatik egindako obrak eta instalazioak egoera onean mantentzeko Administrazioak, emandako agindua ez betetzea.

6) Elementu osagarriak jartzea, horretarako baimenik gabe.

f) ezarritako zigorren zenbatekoa ez ordaintzea edota bermearen zenbatekoa emandako epean ez ordaintzea.

h) kanona ez ordaintzea edo haren ordainketan atzeratzea, beti ere kontratuan hitzartutakoarekin bat etorritz.

Akats bakoitzeko aplikatu ahal izango diren zigorren zenbatekoa, horretarako irekiko den zehapen espedientearen ebazpen proposamenean ezarriko da; urteko kanonaren %20ra artekoa izan ahalko da eta zehapen ahalmena, dagokion espedientearen irekita gauzatuko da, aurrez interesatuari entzun ondoren. Zigorrak ezartzearen ardura Udal Administrazioaren organo eskudunak izango du.

15. BIHURTZEA

Behin kontratuaren epea amaituta, kontratistak erabilitako instalazioak itzuliko dizkio Udalari, egoera onean eta hortxe bukatuko da herri jabetzaren erabilera pribatiboa. Emakida epea amaitzean, lokala berriro ere Udalaren eskutara pasako da ondorio guztietarako eta kontserbazioa eta funtzionamendu egoera onean egon beharko denez, emakidaren epea amaitu aurretik Udalak teknikari bat izendatuko du, kokapenaren egoera kontrolatzeko eta artaketa teknikoaren ondoren, baldintza egokietan mantentzeko beharrezko diren konponketak aginduko ditu. Konponketa lan horiek emakidadunaren kontura izango dira.

16. ERRESKATEA

Udalak beretzako gordetzen du emakida, epea amaitu baino lehenago bertan behera uzteko ahalmena, sor daitezkeen interes publikoko arrazoiak hala justifikatzen dutenean. Hala gertatuko balitz esleipendunari kalte-ordainak ordainduko zaizkio.

17. EMAKIDA BERTAN BEHERA UZTEA

Bertan behera uzteko arrazoiak izango dira

Emakida epea agortzea

Udalaren eta emakidadunaren artean hala adostea

Emakidadunaren heriotza edo ez gaitasuna, lehen mailako oinorderik ez duenean

Hartzekodunen lehiaketa deitzea

Behin betiko bermea ez ordaintzea.

Emakidadunak jarduera ez gauzatzea, ondorio larriak eraginez.

Kanona ez ordaintzea

Emakidadunak uko egitea

Plegu honetan esandakoaren haritik, zigorren bat ezartzea

Ondasuna besterentzea eta herri jabetza erreskatatzea

Hala erabakiko lukeen judizio ebazpena

Emakidadunak kalte-ordaina jasoko du baldin eta emakida interes publikoko arrazoiengatik bertan behera uzten bada; horretarako, kontuan hartuko da frogatutako emakidadunaren lortu gabeko irabazia.

18. BERMEA ITZULTZEA

Kontratua amaituta, bermearen gainean gauzatu beharreko erantzukizunik ez balego eta urte beteko epea pasata bada, hura itzultzeko edo abala kitatzeko erabakia hartuko da.

19. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Administrazioari dagokio, kontratuak interpretatzea, haren betetzean sor daitezkeen arazoak konpontzea, arrazoi publikoengatik aldatzea, bertan behera uztea eta haren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen

testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko Errege Dekretu Legegilean ezarritako betekizun eta ondorioekin bat etorritz .

Administrazioko kontratuen interpretazio, aldaketa, bertan behera uzte eta ondorioei buruz sortu ahal diren auziak, gaitutako kontratazio organoak ebartziko ditu. Hark hartutako erabakiek administrazioko bideari amaiera emango diote eta haien aurka birjarpen errekurtsua jarri ahal izango da, hilabeteko epean, organo beraren aurrean edo administrazioarekiko auzien errekurtsua bi hilabeteko epean, hura jakinarazten edo argitaratzen den unetik hasita.

I. ERANSKINA:

Proposamen ekonomikoa:

Ondorengo eredua jarraituz aurkeztuko da:

d) jakinarazpenak egiteko Klean..... zk.....bizi denak, (NA.....) enpresaren/erakundearen izenean eta ordezkartzan (IFK...) Aretxabaletako kiroletxean dagoen lokalaren ustiaketarako herri jabetzaren administrazio emakidarako espedienteaz jakitun izanik, kontratuaren oinarria den Plegua ezagutzen dudala adierazten dut eta bere horretan onartzen dudala, eta hura aurrera eramateko hilerio €ko gehi BEZari dagozkion €ko kanona ordaintzeko konpromisoa hartzen dudala.

..... n 20__(e) ko ren..... (e) an

Lizitazailearen sinadura,

Sinatuta: _____».

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES

CONCESIÓN ADMINISTRATIVA DE DOMINIO PÚBLICO PARA LA EXPLOTACIÓN DEL LOCAL SITO EN EL POLIDEPORTIVO IBARRA DE ARETXABAETA PARA ACTIVIDADES DEPORTIVAS O ACTIVIDADES RELACIONADAS CON EL DEPORTE Y LA SALUD

1. OBJETO

La presente concesión tiene por objeto la explotación del local que posteriormente se describirá ubicado en el Polideportivo de conformidad con las condiciones recogidas en el presente pliego de cláusulas administrativas particulares.

El bien objeto de la concesión a otorgar, está constituido por el local situado en el Edificio Ibarra Kiroldegia, sito en Markole auzoa de Aretxabaeta.

El local está situado en la Planta 1ª del conjunto de plantas del edificio Ibarra Kiroldegia sito en Markole auzoa de Aretxabaeta, y compuesto por cinco Plantas, distribuidas en Planta Sótano, más Planta Baja, más 3 Plantas altas.

El referido local dispone de una superficie útil de 51,05 m², siendo la superficie total del edificio 7.085,12 m².

Se adjunta como Anexo, Planos de Planta y de fachada del edificio.

El Ayuntamiento, con independencia de las obligaciones consignadas en este pliego, conservará la titularidad de la instalación cuya explotación es objeto de concesión.

Al ser un local ubicado en el polideportivo Ibarra, la explotación del local deberá estar relacionado con actividades deportivas o con la salud.

2. RÉGIMEN JURÍDICO

El contrato que regula las presentes cláusulas tiene naturaleza administrativa y se regirá por lo establecido en este pliego, y para lo no previsto en el mismo, será de aplicación la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de Bases de Régimen Local, el Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local, el Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, la Ley 33/2003, del Patrimonio de las Administraciones Públicas, el Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, el Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas. Supletoriamente se regirá, en lo que no se oponga a las Normas anteriores, por las demás normas de Derecho Administrativo y, en defecto de estas últimas, será de aplicación las normas del Derecho Privado.

3. PLAZO

El plazo por el que se adjudica la concesión es de dos años improrrogables, es decir, hasta el 31 de diciembre de 2018.

El plazo de la concesión comenzará a contar desde la fecha de puesta a disposición de las instalaciones, considerándose como tal fecha la de la firma del contrato, que deberá realizarse en el plazo de 10 días hábiles a contar desde el siguiente de la notificación de la adjudicación.

El Ayuntamiento se reserva la facultad de dejar sin efecto la concesión antes del vencimiento del plazo, si lo justificasen circunstancias sobrevenidas de interés público, resarciendo al adjudicatario de los daños que se generasen por tal motivo.

4. CANON

